

INGURUMEN

Garapen iraunkorrekiko eta ingurunearen eta baliabide naturalen babesarekiko konpromisoa Massimo Duttiren balio nagusienetakoak izan dira hasieratik.

Gure ustez, bezeroek eta gizarte osoak Massimo Duttiren diseinuez gozatzen duten bitartean, hasieratik garapen iraunkorrekiko eta ingurunearen eta baliabide naturalen babesarekin konprometituta gaudela jakin behar dute.

Horretarako, Inditexen Ingurumen Politikaren baitan, gure eragiketetan eta hornikuntza kateetan iraunkortasun eta eraginkortasun irizpideak sartzeko lan egiten dugu egunero.

Konpromiso horiek honako ekintza ildoen bidez jartzen ditugu praktikan:

- Energiaren eta uraren erabilera eraginkorra eta hondakinen kudeaketa egokia bermatzea katearen zentro logistiko, bulego eta denda guztietan. Horretarako, ISO 14001 arauaren arabera Ingurumen Kudeaketarako Sistema bat dugu, gure zentro logistikoetako eta bulegoetako eragiketa guztiak ebaluatzen dituena. Gure denda guztietan aplikatzen da Inditexen Ekodenda Eskuliburua. Horren bitartez, gure energia kontsumoa kontrolatzen eta murrizten dugu eta berotegi efektuko gasen emisioak murrizten ditugu. Horrez gain, denda esanguratsuenetan, LEED ziurtagiria aplikatzen dugu, eraikuntza iraunkorrerako munduko estandar prestigiotsuenetako bat.
- Basoen kudeaketa iraunkorra sustatzea, FSC edo PEFC ziurtagiria duten papera eta egurra erosiz. Ziurtagiri horiek basoen kudeaketa prozesu osoa modu kontrolatuan eta iraunkorrean egiten dela bermatzen dute.
- Gure eragiketa logistikoetan berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko konpromisoa hartzea, eraginkortasun handiko banaketa bideak garatuz.
- Ingurumen eragin txikiko materialak, beren balio bizitza amaitzean erraz prozesatzen direnak, erabiltzeari lehentasuna ematea (esaterako, d2w gehigarriak dituzten plastiko oxo-biodegradagarriak).
- PVCrik gabeko oinetakoak merkaturatzea.
- Lehengaiak lantzeko etapetan iraunkortasun irizpideak aplika daitezela bultzatzea eta zuntz iraunkorren erabilera sustatzea.
- Ekoizpen katean zehar ura ondo kudeatzen dela ziurtatzea, 2020rako "zero isuri" helburua lortze aldera.
- Ehunezko produktuen eta horiek egiteko eta banatzeko erabilitako materialen murrizketa, berrerabilera eta birziklapena sustatzea.
- Gure langileei eta laguntzaileei beren jarduerak modu iraunkorrean kudeatzeak duen garrantziari buruzko prestakuntza ematea eta arlo horretan sentsibilizatzea. Inditexen Ingurumen Politikari eta gauzatutako ekintzei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsulta ezazu helbide honetan:

<https://www.inditex.com/en/our-commitment-to-the-environment>

ANIMALIEN ONGIZATE POLITIKA

Inditex taldeak bere produktuen ekoizpen arduratsurako estandarrak aplikatzen ditu, animalia jatorriko elementuen erabilerari dagokionez. Ildo horretatik, Inditex taldearen animalien ongizate politikak hau ezartzen du:

- Taldeari helarazitako elementuetan erabilitako animalia jatorriko produktu guztiak haragia lortzeko abeltegietan hazitako animalienak izango dira.
- Ez da inola ere erabiliko beren larruak, maskorak, adarrak edo hezurak, besteak beste, saltzeko berariaz hildako animalietatik datorren produkturik.
- Jarduera horretan erabilitako animaliak modu etikoan eta zentzuz tratatuko dira.

Iledun larrua (fur)

Inditexen merkataritza formatuetan ez da ilekun larrurik saltzen (*).

Inditexek Fur Free Alliance taldearen Fur Free Retailer Program programan parte hartzen du.

(*) Fur Free Alliance taldearen 'ilekun larruaren' definizioa: ilea itsatsita duen animalia larruaren edozein zati, findu gabea edo prozesatua, edo bere ilea eskuratzeko berariaz hildako edozein animalia larrua. “Animalia” kontzeptuak hauek barne hartzen ditu (horietara mugatu gabe): bisoiak, azeriak, untziak eta mapatxe txakurrak. “Iledun larruak” ez ditu hauek barne hartzen: 1) landutako larruak edo horretarako prozesuan ilerik gabe uzten direnak, 2) animaliak triskilatzearen edo horien ilea moztearen ondorioz edo animaliak edo bildots eta arkumeen ilea orraztearen ondorioz lortutako materialak (shearlings), 3) larruari itsatsita ilea duen landutako larrua (adibidez, behi larrua), 4) larruak imitatzen dituzten material sintetikoak.

Artilea

Inditex-ek animaliak errespetatzeko politika-printzipioak aplikatu ditu animalia-jatorriko lehengaiak dituzten Taldeko produktu guztietan. Beraz, mulesing gisako praktikak onartezinak dira Inditex-en hornikuntza-katean. Halaber, Inditex-ek angora-artilezko jantziak ekoizteari uztea erabaki zuen 2014an, eta 2015ean bere eskaintzatik kendu zituen produktu horiek. Artilezko produktu guztiek, zuzenean edo zeharka Grupo Inditex-eko hornitzaileekin harremana dutenek, gure politikan ezarritako irizpide etiko eta arduratsuak bete behar dituzte animalien trataerari dagokionez.